

MARKOS AMUNDARAIN

“Kale gorrian daudenak poztu egiten dira ezer eskatuko ez dieten pertsonak hurbiltzen zaizkienean”

Azaroaren 15ean, ‘Pobreen Mundu mailako jardunaldia’ ospatuko da. Aurtengo leloa, “Luzatu eskua” da. Mezua bete-betean betetzen duen CARITAS GIPUZKOAKo boluntario batengana jo dugu: Markos Amundarain (Ordizia, 1950). ‘Bidelagun’ proiektuko boluntarioak, gizarte eta bizitoki bazterketa egoeran dauden pertsonen, kalean bertan, giza-laguntza eskaintzen die. Caritaseko boluntarioak, kalea du hizpide: “Besteak beste, beraiekin kafea hartu eta hitz egiten aritzen naiz”.

Noiz erabaki zenuen kale gorrian daudenei “eskua luzatzea”?

Kalean bizi den jendea, nire bizitzako obsesioetariko bat izan da. Egin ditudan bidaiak ere, Indiatik... barrena, ildo horretatik egin ditut. Erretiroa hartu, eta hurrengo egunean Aterpera joan nintzen boluntario gisa zertan lagundu nezakeen galdetzera.

‘Eutsi’ proiektuan aritu zinen. Hau da, kale gorrian dauden pertsonen kalteak murrizteko programa: sozializazioa, elikadura eta higiene beharrak asetzen ziren bertan.

Eutsiko partaide batzuekin paseatzera ateratzen nintzenean, konturatu nintzen kalean zegoen zenbait jende, ez zela Caritaseko Aterpera hurbiltzen. ‘Beraiek etortzen ez badira, ni joango naiz beraiegana’, esan nuen. Jada, zortzi urte daramatzat ekimen horretan.



Irakaslea izana zara. Zortzi urte horietan, kaleak, 'ikasgai' asko eman al dizkizu?

Bai! Onak eta txarrak. Kaleak beste ikuspegi zeharo ezberdina du: injustiziaren begiradak, zer nolako mespretxuak pairatzen dituzten kale gorrian daudenak...

Ondorengo hau ikusita nago. Pertsona batek limosna bat eman zion txakur bat aldameneari zuen pertsona bati. Eta eman ahala, zera esan zion: "Txanpona txakurrak jan dezan da, e".

Kalean barrena ibilita, azterketa egin diozu gizarteari. Zer nota jarriko zenioke?

Ona jarriko nioke nahiz eta injustiziari sozialki aurre egiteko trabak oraindik hor dauden. Kontxa ondoan aberastasun asko dago baina baita pobrezia egoerak ere.

Begiak behar adina irekita dauzkagu Donostiako kale gorriko errealitateak ikusteko?

Ez. Bakoitzak nahi duena ikusten du. Nire ezagun batek, kotxe dotoreak ikusten ditu soil-soilik. Ekologistak, ingurugiroa pairatzen ari den oinazea jartzen ditu begiak. Bakoitzak bere betaurrekoak jartzen ditu. Herritar askok ez dakite kale gorrian dauden pertsonak badirenik ere.

Eta non erosten dira betaurreko horiek?

Eskura ditugu. Begira, autobus batean, kale gorrian dagoen pertsona baten ondoko eserlekua, azkena izaten da betetzen...



Eseri baino, askok, zutik egotea nahiago izaten dute. Jendeak ez ditu pertsona hauek ikusi nahi. Ezta, inork, zu, eurekin ikusterik ere... Hori dela eta, nire zenbat pertsona ezagunen harridura begiradak, ikaragarriak dira.

Kale gorriko pertsona horiek zer esaten dizute berarengana hurbiltzen zaren aldiro.

Beraiek badituzte 'antena berezi' batzuk, zein eta nola hurbiltzen zaien aztertzeko. Hasieran erreparoa edo, izan dezakete. Baina hitz egiten hasi orduko, zure tonua, zure jestuak... ondo hartzen zaituzte.

Kalean barrena, oro har, emakume boluntario batekin batera ibiltzen naiz. Oso garrantzitsua da bere lana, kalean dauden emakumeengana hurbiltzen garenean batik bat. Kale gorrian daudenak poztu egiten dira ezer eskatuko ez dieten pertsonak hurbiltzen zaizkienean. Pertsona irekiak dira. Aldiz, jendea ez da irekitzen eurengana hurbiltzerako orduan.



Donostiak hainbat leku eder ditu. Bere kaleetatik barrena paseatzen ibiltzen zara. Baita bila ere. Noren bila?

Lotsa alboratu, eta kale gorrian dagoen pertsonengana zuzenean joan, nire burua aurkeztu eta bere berri jakiten aritzen naiz. Ikaragarri eskertzen dute hurbildu izana. Hasieran kezkati hartzen zaituzte baina behin ezagututa, erreklamatu egiten zaituzte.

Duela urte batzuk, Ernesto izeneko pertsona bat ezagutu nuen kalean. Hitz egiten aritu ondoren, "Igaro egun on bat" esan nion. "Niretzat egun ona, zu etortzen zaren hura da" erantzun zidan bueltan.

Herritarrei eskatuko nieke pertsona hauengana hurbiltzean; 'laguna' zarela antzeman dezala, eta ez eurak mespretxatzen dituztenetariko bat. Kale gorrian daudenak behar ezberdinak dituzte. Beraz, beraiei, 'Egun on' esanez hasi daiteke hurbilketa pauso hori.

Pobreziarik gogorrena, bakardadea?

Laguntza eske CARITAS GIPUZKOAKo Aterpera hurbiltzen den pertsona batek, ez du esaten, ez dut dirurik. Ez dut inor, baizik. Eta emakume bat bada, gogorragoa da.

Bestalde zera gaineratu nahi dut, bakardadeari aurre egiteko, gizonezkoen alkoholismoa begi-bistan dago. Kanean kontsumitzen dute. Baina kezkatuta nago zenbat emakumek etxeetan kontsumitzen duten alkohola; horiengana ez dugu hurbiltzea lortzen.

Kontsumoek ere bereziki kezkutzen zaituzte.

Zaborra ondo antolatua daukagu. Hemen, kartoia. Han, kristala. Beste horretan, organikoa. Baina beti geratzen da hondakinen bat horietatik kanpo, eta erraustegira eramaten dute.

Eta kontsumoak dituzten pertsonekin, zer egin behar dugu? Alegia, kontsumoak nahimena deuseztatu dien pertsona horiekin? Lan asko dago egiteko.

Pertsona batek limosna bat eman zion txakur bat aldamenen zuen pertsona bati. Eta eman ahala, zera esan zion: "Txanpona txakurrak jan dezan da, e".